



"Iazko esperientzia aberasgarria izan zenez, aurten ere Enguia ume sahararra hartuko dugu harreran"

Mallabiko Maitane Polo Gerrikabeitiak eta Julen Pradera Olasok Tindufeko kanpalekuan (Aljeria) errefuxiatuta bizi den Saharako ume bat hartu zuten iaz harreran: Enguia, 8 urteko neskatoa. Esperientzia aberasgarri haren ondoren, aurtengo udan ere hartuko dute Enguia harreran, 'Oporrak Bakean' programaren barruan. Egitasmoa Río de Oro elkarteak bultzatzen du. • **2-3**



18 familia unitatek ortu komunitarioa dute lurretan

Iurreta • Orain urte bi Garaizar auzoan sorturiko ortu komunitarioko kideek ate irekien saioa egingo dute martxoaren 26an. Ekimena ezagutarazi gura dute, eta jendea proiektura batzera gonbidatu. • **6**

Abadiño Sokatira Taldeko gazteei omenaldia munduko txapelketako lorpenengaitik



Abadiño • Martitzenean, Abadiño Udalak harrera instituzionala egin zien munduko txapelketatik urrezko hiru dominagaz bueltatu diren gazteei. Datorren urtean munduko beste txapelketa bat egongo da eta Abadiño sokatirariiek distira egiteko beste aukera bat izango dute han. • **20**

Break On Stage jaialdirako sailkatzeko lehiatuko dira

Elorrio • Zapatuan Akadantz dantza urbano lehiaketa jokatu da Elorrioko Arriolan; talde irabazleak Break On Stage jaialdian dantzatzeko aukera izango du. Sarrerera guztiak salduta daude. • **19**





“Udan Saharako ume bat harreran hartzea oso esperientzia positiboa da, oso gomendagarria”

Maitane Polo Gerrikabeitia (Zornotza, 1984) eta Julen Pradera Olaso (Mallabia, 1984) senar-emazteek iazko esperientzia errepikatzea erabaki dute. Aurten ere Saharako Enguia neskatoa hartuko dute harreran. Haurrak 8 urte ditu.

ELKARTASUNA • EKAITZ HERRERA

Kanpalekuetan errefuxiatuta bizi diren ume sahararrak harreran hartzeko Oporrak Bakean programa martxan da dagoeneko. Mallabiko familia honek 8 urteko Enguia neskatoa izango du harreran, udan, Río de Oro elkartearen bitartekartzagaz. Enguia, baina, ez da etxeko txiki bakarria izango. 9 urteko Jare eta 5 urteko Maddi ahizpak izango ditu lagun.

Iaz harrera familia izan zineten, lehenengoz, eta aurten esperientzia errepikatzea erabaki duzue.

Maitane Polo Gerrikabeitia: Izurria zela eta, Oporrak Bakean programa etenda egon zen urte bian. Eta gogoratzen dut iaz, kotxean nindoa-la, programari berrekingo ziotela entzun nuela irratan. Familiak behar zituzten harreran. Gaiak hunkitu egin ninduen eta Saharako ume bat harreran hartzea proposatu nion Juleni. Laguntzeko gogo hori genuen.

Julen Pradera Olaso: Esperientzia aberasgarria eta berezia izan zen iazkoa. Aukera polit eta interesgarri bat izan zitekeela ikusten genuen. Egonaldi hauek hilabete biko iraupena izaten dute normalean, baina iazkoa hile baka-

rrekoa izan zen. Horrenbestez, aurten aukera paregabea dugu esperientzia errepikatu eta hile bian elkarregaz egoteko.

Enguia hartu zenuten harreran. 8 urteko ume sahararra. Zelako esperientzia izan zen?

M.P.G.: Sekula ez zait ahaztuko Enguia gurera etorri zen eguna. Izurtzako aterpetxean hartu genuen. Furgonetatik jaitsi zen lehenengo umea izan zen bera, eta energia bor-bor zeukan. Izugarri pozik zegoen, zarata batean. Ume bizi-bizia da, ipurtarina, oso-oso maitagarria.

J.P.O.: Berarentzat berria zen dena. Dena ikutu behar zuen, dena egin, dena esperientzatu. Hizkuntza dela eta, hemengo kontuen ezezagutza dela eta, hasieran kudeatzeko gatzak izan daitezkeen momentuak bizi ditzakezu, baina egunek aurrera egin ahala primeran doa dena. Euskaraz berba egiten hasi zen. Astebetera esaldiak lotzeko gai zen. Jatekoagaz ere ederto moldatu zen.

Esperientzia honek zein ekarpen egin dizue, zer ikasi duzue Enguiagaz?

M.P.G.: Askok ikasi dugu Enguiak bizirik irauteko duen grina ho-

rregaz, bizitzaren arlo txiki guztiak gogoz bizitzeko grina horregaz. Askotan galdetzen zigun, "zer egingo dugu gero?, zer egingo dugu bihar?". Ekintza txiki guztiak barru-barrutik bizi ditu.

J.P.O.: Gogoan dut Enguia harreran hartu eta Baqueirara joan ginela oporretan. Hango belardietan etzaten zen, belarra sen-

titzeko. Beharbada horixe izango zen Enguia gehien harritu zuen esperientzia, belarra ikutze hori. Eta, jakina, hondartza eta itsasoa ikustea ere bai. Zuretzat arruntak, txikiak, izan daitezkeen kontuak dira, baina berarentzat oso ilusionagarriak izan daitezke. Beraz, esango nuke gauzak baloratzen erakutsi digula. Daukagu-

na baloratzen ahalegintzen gara, daukaguna gehiago baloratzen.

M.P.G.: Ia-ia astero egiten dugu bideo-deia. Izen guztiekin gogoratzen da. Zelan amama? Zelan aitita? Gu guztiok zelan gauden jakin gura du. Eta euskaraz egiten digu.

Eta zer ikasi zuten Maddi eta Jare alabek esperientzia honeguz?

M.P.G.: Askok ikasi dute elkarren ondoan egonda. Gure alabek, adibidez, balio batzuk jaso dituzte Enguiari eskerrak. Beste errealitate batzuk ere badaudela ikasi dute. Gure txikia txikia da oraindino, baina alaba nagusiak, bai, barneratu du hori. Kontzien-

Zuretzat arruntak diren kontuak oso ilusionagarriak izan daitezke berarentzat. Enguiak gauzak baloratzen erakutsi digu, gauza txiki bakoitzari bere balioa ematen

te da egoeraz, eta eskolan ere landu dute. Enguiak beste kultura batzuk ezagutu ditu, hemen ere badira-eta beste errealitate asko.

J.P.O.: Partekatzea da ikasi duten beste gauza bat. Arropak partekatzea, jolasak partekatzea, etxeko espazioa partekatzea... hori ere ikasi dute.

Oporrak Bakean programan parte hartzeko gonbitea egingo zeniekete gainerako familiei?

M.P.G.: Bai, zalantzarik barik. Esperientzia honek alde positibo ugari du. Herrialde bat ezagutzen duzu, bertan bizi duten errealitate gogorra ezagutzen duzu, Saharako herriak duen historia ere bai. Dena da aberasgarria, eta oso gomendagarria deritzot harrera familia egiteari.



Familia osoa Baqueira-Beretan oporretan.

Aurten, Elkartasun Karabanak 8 tona elikagai eramango ditu Durangaldetik Tindufen dauden kanpamentuetara

Espainiako eta Aljeriako gobernuen arteko erlazio "konplikatuagaitik" ohikoa baino tona gutxiago bidali ahal izango dute

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Río de Orok urtero martxan ipintzen duen Elkartasun Karabanak Tindufeko kanpamentuetan bizi diren sahararrentzat laguntza humanitarioa batzea du helburu. Aurtengo bilketa amaituta, ekimenaren balorazioa egin dute asteen.

Durangaldetik 8 tona elikagai eta garbitasun produktu bidaliko dituzte aurten. Kopuru hori aurreko aldietan bidalitakoaren herena da, gutxi gorabehera. Río de Oro Mikel del Arcok horren zergaitia eman du: "Espainiako eta Aljeriako gobernuen arteko hartu-emanak konplikatuak dira, bai politikoki bai komertzialki. Beste erkidego batzuek karabana etetea erabaki dute, baina guk



Río de Oro kideak eta Durangoko, Abadiño eta Mallabiko udaletako ordezkariak, martitzenean, Elkartasun Karabanaren aurkezpena.

aurrera jarraitzea erabaki dugu". Bidalketa bermatzeko, kantitatea gutxitzea erabaki dute, produktuen kalitatea hobetu dute. "Zama txikiagoa da, baina nutrizio-balio

berdina du eta balio ekonomikoa ere berdina da. Elikagaien Mundu Programako eta Gurutze Gorriko arduradunekin kudeatu dugu gaia", azaldu du del Arcok.

Adibidez, normalean baino atunlata gehiago bidaliko dute —1.500 kilo— nutrizio-balio handikoa delako. Hauetxek dira Tinduferra bidaliko dituzten beste produktu

batzuk: lekaleak, 4.000 kilo; oliba olio, 900 litro; konpresa, 400 kilo; eta haur-oihalak, 100 kilo.

Lau kamioi

Euskadin baturiko 58 tonak apirilaren amaieran irtengo dira Bilbotik Alacantera, tamaina desberdinetako lau kamioitan. Durangaldean baturiko 8 tonak kargamentu horretako parte dira. Alacanten ferry batean sartuko dituzte Oran-era (Aljeria) bidaltzeko.

Hurrengo aldietan ohiko tona kopurura itzultzea aurreikusten dute. "Aurtengo erabakia ez da behin betikoa. Aitzitik, lanean gabiltza berriro gure ohiko kopurua bidali ahal izateko, eta lortuko dugula uste dut", azaldu zuen del Arcok.

Datu ekonomikoei dagokienez, 27.915 euro batu dituzte. Eurretari 23.581 euro diru laguntza publikoak izan dira, 1.500 euro dohaintza pribatuak eta 2.834 euro diru-bilketa kanpainaren bidezkoak.

Río de Orok hamargarren urteurrena ospatzeko jaia egingo du maiatzean

Ospakizun ekitaldira Emakume Sahararren Elkarteko hainbat kide etorriko dela aurreratu dute Río de Oroko



Río de Oro antolatutako jai bateko irudia.

DURANGO • J.D.

Río de Oro elkarteak jai bat antolatzen du urtero Durangon. Aurten goa maiatzaren 20an izango da. Ekimena ez dute ofizialki aurkeztu oraindino, baina Elkartasun Karabanaren gaineko xehetasunak emateko prentsaurrekoan zertzelada batzuk aurreratu zituzten.

Aurten urteurren berezi bi daude. Batetik, Río de Oro hamar urte betetzen ditu. Bestetik, 2023an 50 urte bete dira Fronte Polisario mugimendua eratu zenetik. Ildo horretatik, Durangoko maiatzeko jaira Emakume Sahararren Elkarteko hainbat lagun etorriko dela azal-

du zuen Mikel del Arcok. "Egun berezia eta polita izango dela uste dugu eta herritar guztiei parte hartzeko deia egiten diegu", gehitu zuen. Plateruenaren kanpo aldeko parkean hainbat ekintza egingo dute.

Bertsio lehiaketa

Bestalde, Plateruena barruan musika taldeen bertsio lehiaketa egingo dute. Lehiaketara aurkeztu den talde bakoitzak musika talde bakarraren bertsioak joko ditu 15etik 20 minutura artean iraungo duten kontzertuetan. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA
AIRFLOW PERIODONTZIA
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO
ANDRA MARI KALEA 4
944 008 235 - 688 766 973

GALDAKAO
LAPURDI KALEA 18
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE

Trenbide zaharreko trazaduran bizikletentzako bidegorria, oinezkoen pasealekua eta anfiteatro bat egingo dituzte

Durangoko Udalak bidegorri batez egokituko du garai bateko trenbideko trazadura. Proiektuak Mañaria erreka-
ren gaineko metalezko zubia berreskuratzea aurreikusten du, eta katenaria elementuak farola bihurtu gura dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA
Lehen trenaren igarobidea zena, bizikleten eta oinezkoen pasabidea izango da etorkizunean. Durangoko Udalak bidegorria egingo du garai bateko trenbidearen eremuan. Trenbide kaletik Abadiño mugaraino dauden 905 metroak egokituko dituzte, bizikletentzako bidegorria, oinezkoentzako pasealekua eta inguruko berdeguneak handituta. Plateruena Kultur Aterpearen atzeko metalezko zubia ere, Mañaria erreka-
ren gainean eraikita dagoena, oinezkoentzako pasabide izatea gura dute. Horretarako, udalak beharrezko baimenak eskatu dizkio URA agentziari. Proiektuak aurreikusten duen beste atal bat trenaren garai bateko katenaria mantentzea da. Burdinazko zutabeok argiztapen elementu bihurtuko dituzte. Eta Landako Gunearen parean aisialdiari begirako beste jarduerak bat egitea ere badute begiz jota. Bertan anfiteatro bat egin gura du udalak. Lan horiek guztiak egin ahal izateko, 950.000 euroko inbertsioa egingo dute. Kopuru

horretatik 200.000 euro 2022an bozkaturiko aurrekontu parte hartzaileetatik txertatuko dira. Proiektu hau Euskal Trenbide Sareak trenaren trazadura udalari utzi ostean etorri da. Udalak oraingo ez du aurreikusi lanak noiz hasiko dituen. URA



Montevideo kalearen eta Landako Gunearen arteko zatiak honako itxura hau hartuko du gutxi gorabehera.

Durangoko EAJk udaltzain gehiago egotea proposatu du, "delituen gorakadagaitik"

DURANGO • E.H.
Durangoko EAJk "kezkak" dio "delituen gorakadari", bere esanetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 20.000 biztanletik gorako udalerrien artean Durango delako delituen hazkunderik handiena izan duen herrietariko bat. Horregaitik guztiagaitik eta azkenaldian herriko negozioetan "hainbat lapurreta" egon delako, neurriak hartzeko eskatu diote gobernu taldeari. Otsailean egindako osoko bilkuran bertan, Josune Escota zinegotziak delituen gorakadaren aurrean zein neurri hartuko zuen galdetu zion gobernu taldeari. Oraindik "erantzunik jaso ez" duela dio EAJk. "Gelditasun horren aurrean, hutsik dauden plaza guztiak betetzea eta Durangon udaltzain gehiago egotea" proposatu dute, "beste agente batzuekin lankidetzan". Jeltzaleen berbetan, Durangon %43,26 igo ziren arau-haustek 2020tik 2021era bitartean.

Udalak lehiaketa publikora atera ditu Juan Itziar auzoan gizarte etxea egiteko lanak

Lizitaziora atera dituzte lokala egokitze lanak, 78.539 euroko aurrekontuagaz

DURANGO • EKAITZ HERRERA
90eko hamarkadara arte janari-denda izandako lokala gizarte etxea izango da laster, Juan Itziar auzoan. Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera ditu auzoan "dinamika berriak sustatzeko", bileterako eta aisialdirako erabiliko den lokaleko obrak. Gunea atontzeko lanak 78.539 euroko aurrekontuagaz atera dituzte lizitaziora. Lokalak gune nagusi bi izango

ditu, baina, horretarako, barruko tabikea, gaur egungo komunak eta zoladurak berregokitu beharko dituzte lehenengo. Etorkizuneko auzo etxearen lokal biak Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak dira, baina, hitzarmen bati eskerrak, Durangoko Udalak izango du horiek kudeatzeko ardura. Alde horretatik, udalak eragile bien arteko lankidetzak eskertu du. "Orain astebe-

teko sutearen ondoren, aurrera jarraitzen dugu Juan Itziarren bizilagunentzako gune bat eskaintzeko asmoagaz. Gobernu taldean argi dugu auzoei tresnak eman behar dizkiegula Durango geroago eta herri dinamikoagoa izan dadin, eta uste dugu gizarte etxe honek horretan lagundu dezakeela", adierazi dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak.



Juan Itziar auzoa.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko martxoaren 17a
21. urtea - 929. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Landako Gunean eta Musika Eskolan 750 eguzki plaka ipintzea aurreikusi du Durangoko Udalak

Eraikinetako kontsumoa
%35 gutxitu gura dute

DURANGO • E.H.

Artico Ingurumena S.L. enpresak 758 plaka fotoboltaiko ipiniko ditu Landako Eskolan, Landako II Kiroldegian eta Ezkurdiko frontoian. Dena dela, Durangoko Udalak aurreratu du antzera bateko ekintza gehiago etorriko dela etorkizunean.

Landako Guneako eraikinean eta Bartolome Ertzilla Musika Eskolako teilatuan beste 750 eguzki plaka egongo dira etorkizunean. Azken eraikin honetan, baina, teilatua eraberritu beharko dute lehenengo. Irailean hasiko dira teilatua konpontzen eta ondoren plakak ipiniko dituzte. Eraikin publikoetako energia kontsumoa %35 gutxitzea gura du udalak.



Zornotzako EH Bilduk hauteskundeetarako hautagaien zerrenda aurkeztu du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ander Uriarte izango da Zornotzako EH Bilduren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan, gaur egun koalizioaren bozeramailea dena. Koalizio subiranistak dio "ilusio handiko" taldea osatu duela, "zornotzar guztien ongizatea bermatzeko helburuagaz". Zerbitzu publikoen "defentsa", justizia soziala eta "aniztasunagazko errespetua" izango dira EH Bilduren ardatzetariko batzuk.

Gaur egun zinegotzi diren Ander Uriartek, Itxaso Gerediagak, Gaizka Esparzak eta Bego Atxak hautagaitza errepikatuko dute.

Berrehun emakumek Marixelarre saria jaso dute Zornotzan

1940tik 1975era bitartean lanbide profesional batean aritu ziren emakumeak saritu zituzten, joan zen zapatuan, udalak Martxoaren 8aren inguruan antolaturiko ekitaldian

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Joan zen zapatuan, Marixelarre sariak banatu zituzten Zornotzan. Emakume zornotzarrak eta herriko emakumeen alde lan egin duten pertsona, erakunde eta proiektuak aitortzea du helburu sariak. Edizio honetan, 1940tik 1975era bitartean lanbide profesional batean aritu ziren berrehun bat emakume zornotzar omendu ditu udalak.

"Bidezkoa da zuek guztiok, zornotzar emakumeok, gizarte eta garai konplexu batean egindako lana eta egindako ahalegina aitortzea eta balioestea. Zuen ahalegina eta dedikazioa izan dira hurrengo belaunaldiok aurrera egiteko izan dugun oinarria. Zuen ausardia eta abangoardiako lanik barik, ezinezkoa izango zen emakumeok gaur egun lanean eta gizartean izan ditugun konkistak lortzea, nahiz

eta oraindino bide luzea dugun egiteko", adierazi zuen Ainhoa Salterainek Zubiondo parkeko karpan.

Sariei kritika

Zornotzako EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK sariketa kritikatu dute: "Udalarena den ekitaldi bat berea bailitzan" erabili duela leporatu diote Zornotzako EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK Ainhoa Salterain zinegotziari.



Marixelarre sarietako argazkia.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko
Emakume Chef Onena.

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK

www.indartsuagoak.eus

Automobilgintzaren sektorea garatzeko zentro berri bat zabaltzen dute Boroan

Enpresek mugikortasunari loturiko "irtenbide berriak" aztertuko dituzte Automotive Intelligence Center zentroan



Agintariek joan zen barikuan bisitatu zuten zentro berria.

ZORNOTZA • E.H.

AIC-Automotive Intelligence Center eraikin berria inauguratu dute Boroako industrialdean; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan automozioaren sektorea garatzeko eta ikertzeko zentro berria da. Bertan esku hartzen duten enpresek "mugikortasunerako irtenbide berriak" landu gura dituzte, "digitalizazioa, konektibitatea eta elektrifikazioa" aztertuta. Oraingoz, CAF eta Gestamp

dira eraikin berrian esku hartzen duten enpresetarik bi. Dagoeneko hasita daude bertan lanean. Inaugurazio ekitaldia joan zen barikuan egin zuten, eta bertan izan zen, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria. Urkulluren berbetan, automozioaren sektorea "funtsezkoa" da ekonomia-erentzat, automobilgintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren "%25" hartzen du eta.

Epaileak lurretako udal idazkari ohiaren errekurtsioa onartu du

EAEko Auzitegi Gorenaren Administrazio Sailak inpugnatu egin du lurretako udal idazkari ohiaren kargugabetzea

IURRETA • AITZIBER BASAURI

EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak onartu egin du lurretako Udaleko idazkari ohiak Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren foru dekretuaren kontra 2020ko azaroan aurkezturiko errekurtsioa. Hartara, inpugnatu egin du lurretako udal idazkariaren funtzioak Zornotzako udal idazkariarenagaz pilotzea baimentzen zuen dekretua, lanean zegoen udal idazkariaren kargu uztea ere baimentzen zuena.

Ebazpenak dio 2020ko martxotik irailera udal idazkaria izan zenak eskubidea duela berriro ere lanpostura bueltatzeko, "ekarri ditzakeen ondorio ekonomiko guztiekin, kargua uztera behartuta egon zenetik eta berandutzako-interesak barne". Prozesu kostuak ere

udalak ordaindu beharko ditu. Iñaki Totorikaguena alkateak esan du ebazpena ez dela irmoa, eta udal zerbitzuak errekurtsioa ipintzea aztertzen dabilzala. Martxoaren 29ra arte dute epea horretarako.

Eztabaida plenoan

EH Bilduk ere eman du iritzia: "Argi esan genuen ez geundela ados. Ezkutuan harturiko aldebakarreko erabakia izan zen eta ez dugu uste denok ordaindu behar dugunik". Bestalde, Totorikaguenak dio "erabaki hura alkateak hartu beharrekoa zela eta udalaren interesen alde" harturikoa izan zela: "Prozedurari jarraituz eta txosten tekniko guztiekin egin zen eskaria Aldundian. Ebazpen administratibo guztiak errekurritu daitezke eta denek dute eragin ekonomiko bat, baina epaia irmoa izan arte ez dugu jakingo".

"Ortuari dagokion guztia elkarregaz planifikatzen dugu"

18 familia unitatek ortu komunitarioa lantzen dute lurretako Garaizar auzoan



Patxikobaso baserriaren alboan dagoen ortu komunitarioak 2.000 metro koadro ditu.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Orain urte bi lurretan sortu zuten ortu komunitariokoek ate irekien jardunaldia antolatu dute martxoaren 26rako, 11:00etan ekimena ezagutarazteko. Halaxe azaldu dute Haira Urkijo Goienetxeak (Durango, 1993) eta Mikel Gandarias Jaiok (Durango, 1991). Talde lanak bereizten du sasoiko produktu ekologikoen ortu komunitario hau. Asteke lana domekan antolatzen dute, eta hile birik behin batzartu egiten dira, erabakiak hartzeko. Proiektura batu gura duenak gu-reortue@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Zein ezaugarri ditu zuen ortuak?

Mikel Gandarias: Denon artean lantzen dugun ortua da gurea, ez dago partzela txikietan zatituta. Horrek bereizten du. Ortuari dagokion guztia elkarregaz planifikatzen dugu eta uzta ere denok batera batzen dugu. Familia unitateetan funtzionatzen dugu eta baratzean hilean 10 ordu lan egiteko konpromisoa hartzen du bakoitzak. Hilean 10 euroko kuota finkoa ordaintzen dugu, eta hileroko gastuak estaltzeko diru kopuru bat ipintzen dugu aparte. Bakoitzak, astero, landutako produktuen otzara bat darama etxera. **Zelan batu zineten proiektura?** Haira Urkijo: Patxikobaso baserriko Monikak eta Urdazpalek bultzatu-

ta sorturiko proiektua da, Ingalaterran ezagutu eta hona ekarritakoa. Horretarako bideratu zitekeen lursail bat zuten, eta proposamena zabaltzen zuten. Horrela batu ginen.

Zein helburugaz?

M.G.: Denok astero uzta batzea, etxera otzara eramatea. Horixe dugu helburu amankomuna. Hortik ekinda, bakoitzak bestelako helburu propioak izan ditzake. Naturagaz, lurragaz, berriro konektatzeko batu dira batzuk; beste batzuk ikasteko, baserriko mundua apur bat ezagutzeko; eta talde dinamika

Zuretzat arruntak diren kontuak oso ilusionagarriak izan daitezke berarentzat. Enguiak gauzak

batean parte hartu eta jende berria ezagutzeko batu direnak ere badaude. Dena dela, helburu praktikoa batek batzen gaitu: asteroko otzara aurrera ateratzea; horretarako lan bat egin behar dugu.

H.U.: Gainera, kontsumitzeko beste modu bat sustatzea eta autosufizientzia izatea lortzea da proiektu hau sortzeko helburu nagusia hasieratik.

Martxoaren 26an, ortua ezagutarazteko jardunaldia egingo duzue.

H.U.: Bai, eta ortu honetan parte

hartzeko aukera ere zabalduko dugu. Ortuak 2.000 metro koadro ditu eta 35 familia unitategaz ere bideragarria izango litzateke. Gure ustez, horixe da gehieneko kopurua. Hortik gora, beste ortu bat sortzeko aukera aztertu daiteke. Dena dela, eredu hau beste leku batzuetara ere zabaltzeko daiteke.

M.G.: Jende gehiagok parte hartzeko ere ematen du lurrak. Gainera, ohartu gara talde eredu honetan errazago ateratzen dela aurrera ortua, norberak berea bakarrik baino. Zenbat eta familia gehiago, orduan eta produktiboagoa izango da, eta lan indar handiagoa izango dugu.

Jendea proiektura batu dadin, zeintzuk abantaila nabarmenduko zenituzkete?

H.U.: Esandakoaz gainera, etxeko sukaldaria bertoko produktu ekologikoa eramateko aukera dugu, norberak eta taldeak mimo guztiz ekoizturiko produktua. Gainera, elikagai desberdinak probatzeko eta prozesu guztia ikusi eta jarraitzeko aukera dugu. Beste abantaila bat, zer esanik ez, bertako barazkien zaporea!

M.G.: Bestalde, pribilegio bat da horrelako leku bat izatea, nekazariaren jakintza osoa partekatzeak aukeragaz. Gainera, talde harreman ona mantendu eta sustatu gura dugu, eta ekitaldiak antolatzen ditugu horretarako.



Ostalaritza gida



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!



Durango



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera.
Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.



Zornotza



XIBERU
Zezilia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak astebururo. Giro
alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



Iurreta



GAUARGI
Dantzari 4 behea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak. Domeketan
rabak eta askotariko errazioak.



Energia Berriztagarrien Komunitateak eta herriko ikasleek erakusketa antolatu dute

Herritarrek boto bidez aukeraturiko hiru lanekin Elorrioko Energia Berriztagarrien Komunitatearen logoa eta izena garatuko dituzte. Lanak Iturrin egongo dira ikusgai

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko ikastetxeetako ikasleek hainbat lan egin dituzte energia berriztagarrien gaia lantzeko. Orain, lan horiek batu eta Iturri Kultur Etxean egongo dira ikusgai, martxoaren 23tik apirilaren 10era.

Erakusketako lanen artean, gustukoen dituzten izenak eta irudiak bozkatu ahal izango dituzte elorriarrek. Botorik gehien jasotzen duten hiru lanak Elorrioko Energia Berriztagarrien Komunitatearen logoa eta izena garatzeko erabiliko dira.

Diseinuak Txintxirri Ikastola-ko, Elorrioko Eskola Publikoko, Elorrioko Institutuko eta Lourdesko Ikastetxeko ikasleek egin dituzte.



Energia Berriztagarrien Komunitateko kide batzuk udaleko zinegotziekin batera.

Elorrioko bost kirolarik diru laguntza jaso dute bakarkako kirola sustatzeko

Bost kirolarien artean 2.000 euroko laguntza banatu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak 2.000 euro banatu ditu Elorrioko bost kirolariren artean, 2022ko diru laguntzei eskerrak bakarkako kirola sustatzeko. Arte mar-
tzialetan, motoziklismoan,

atletismoan eta triatloian lehiatu diren kirolariek jaso dute udalaren laguntza. Hauek dira laguntza jaso duten elorriarrek: Celia Oliveira, Argia Bravo, Gonzal Murgoitio, Paul Bravo eta Jon Grande.



Celia Oliveira kickboxing eta muay thai kiroletan aritzen da.

Eraikinak garbitzen dituzten langileen oinarritzko soldata hobetuko dute Abadiñon

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak eraikinak garbitzen dituzten langileen oinarritzko soldata hobetzeko konpromisoa hartu du, urtean 19.600 euro gordinera heldu arte. Bestalde, administrazio agirietan klausula berri bat sartu gura dutela jakinarazi dute, lanpostu hutsak udalak antolaturiko hautaketa prozesuen ondorengo enplegu-zerrendetako pertsonak bete ditzaten. "Klausula hori sartzea aurrerapauso handia da. Eraikinen garbiketari dagokionez, uste dugu proposaturiko soldata igor-
rak bete egiten dituela langileen azken aldarrikapenak, udalaren aurrekontuak arriskuan ipini barik", azaldu du alkateak.

EH Bilduk Zelaiaetako jolastokia udan eraberritzeko eskatu dio gobernu taldeari

Hezkuntza Sailak emandako laguntza jasotzeko, lanak abenduaren 31 baino lehenago amaituta egon behar direla azaldu dute ohar baten bitartez Abadiñoko EH Bilduko kideek

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zelaiaetako jolastokiaren eraberritze proiektua hezkuntza komunitatean sorturiko parte hartze prozesuaren bitartez zehaztu zen eta EH Bilduk proiektu hori ahalik eta arinen gauzatzeko eskatu dio gobernu taldeari. "Lanak uda hasieran hasteko eskatzen dugu, ikasturtean zehar ahalik eta eragin gutxien izateko", azaldu dute oposizioko kideek.

Horrez gainera, Hezkuntza Sailak jolastoki inklusiboak egiteko onarturiko dirula guntza jaso ahal izateko, lanak abenduaren 31 baino lehenago amaituta egon behar direla jakinarazi dute.



Zelaiaetako eskolako argazkia.

Anbotoko Dama nagusien elkarteko batzar nagusirako izen ematea, zabalik

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Anbotoko Dama nagusien elkarteak batzar orokorra egingo du apirilaren 1ean, Atxondoko Goibegoi elkartean. Nagusien elkartetik jakinarazi dutenez, batzar-
rak deialdi bi izango ditu: lehenengoa 12:30ean izango da, eta bigarrena 13:00etan. Horren ondoren, 14:00etan, autobusa hartu eta bazkaria egingo dute Elorrioko Katxarro jatetxean.

Elkarteko kideek jakinarazi dute izena ematea beharrezkoa izango dela ohiko batzar nagusian eta bazkarian parte hartzeko. Martxoaren 21ean egongo da izena emateko aukera, 16:00etatik 17:00etara, liburutegian.

ERDI-MAILA:

MANTENTZE-LAN
ELEKTRO-MEKANIKOA

BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK

ELIKAGAIK ELABORATZEKO
ikastetxean galdetu * TEKNIKARIA

lea artibai
ikastetxea

946 169 002 Markina-Xemein

info@leartik.eus



GOI-MAILA:

ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO
PROZESUAK ETA KALITATEA

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA
INDUSTRIALA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA

EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA
EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA





Athletic Club



Vs



Getafe CF

Apirilak 1 | 16:15etan



Athletic Club




Vs



CA Osasuna

Apirilak 4 | 21:00etan

Ligako eta Kopako partida guztietarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatu dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: martxoaren 26a.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



**anboto
kide**


anboto
kide

Anbotokideen txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK



Ez naiz inoiz Dublinen egon antzerkirako bi sarrera. Martxoaren 24ean, Arriolan.



Alderray antzerkirako bi sarrera bikoitz. Martxoaren 24ean, Zornotza aretoan.



Tetuan dokumentalerako sarrera bikoitza. Martxoaren 24an, Bizkaia Aretoan. Loraldia festibalaren barruan.




Loraldia Terninala: Sormen berriaren harrobia ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 25ean, La Terminal-en.



Popperra, Afterra, Utopia ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 26an, Guggenheim-en, Loraldia festibalaren barruan.



Garaiko sagardo egunerako 5 edalontzi (sagardoa, intxaurrak, gazta eta urdai pintxoa barne).



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Jatordua Uxarten: Jone Berriozabal Bernas

Elur zuriren hiru heriotzak: Lorazain eguna: Amagoia Zuazo Ibarra

Alaska: Xabier Zubizarreta Gaztañaga

Pin-Pang: Amparo Guillen Ibañez

Hegoak: Egoitz Uriarte Muñoz

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Zaldibarren N-634 errepidea hobetzeko proiektua onartu du Bizkaiko Aldundiak

Azken urtean dozena erdi istripu eta gorabehera gertatu dira errepide honetan

ZALDIBAR • J.G.

Joan zen martxoaren 7an, Zaldibarreko N-634 errepidea hobetzeko proiektua argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Guztira, 4,2 milioi euroko diru atala ipini dute proiekturako. Hasieran aurreikusitakoa baino milioi bat gehiago igo da inbertsioa. Udalerria bitan banatzen duen errepidea etengabe zeharkatu behar duten bizilagun guztien segurtasuna bermatzea da proiektuaren helburu nagusia.

Lau dira proiektu honetan kon-tuan hartu beharreko jarduerarik garrantzitsuenak. Alde batetik, Euskal Herria etorbidean semaforoak ipiniko dituzte Arantzamendi kaleagaz bat egiten duen lekuan. Abiadura kontrolatzeko radar bat ipintzea ere aurreikusi dute. Bestetik, Abeletzeko irteeran eta Gortazar kaleko sarreran semaforoa eta zebra-bidea ipintzea aurreikusi dute. Horrez gainera, Muelles Zalduren ondoan biribilgunea egingo dute. Biribilguneagaz, Arangurengo urbanizaziorako sarbidea hobetu eta autobus garelekuak



N-634 errepideak zati bitan banatzen du Zaldibar.

birkokatuko dira. Biribilgunearen eta San Andres espaloia-aren artean lorategi gune txiki bat egongo da. Amaitzeko, San Andres etorbidean errepidea mende balderantz mugitzea da asmoa.

Istripuekin kezkatuta

Zaldibarko Udalak azaldu duenez, azken urtean dozena erdi istripu eta gorabehera izan dira errepide horretan. "Azkenengoa asteburu honetan izan da, eta, kasuren batean, ondorio latzak izan ahal

zituena. Arrisku faktoreetarikoa bat abiadura da, baina baita egungo trazadura bera ere, ia dena maldan da eta. Espaloia ez dago errepidetik behar den moduan babestuta. Areitiora igotzen diren ibilgailuak bertatik hurbil pasatzen dira eta arrisku nabarmena dago oinezkoentzat, baita auzotik irten eta auzora sartu gura duten ibilgailuentzat ere. Obrei eskerrak, N-634 errepidera segurtasun handiagoz sartu ahal izango dira", adierazi dute.

Sagardo Eguna ospatuko dute martxoaren 25ean



Aurreko edizio bateko Sagardo Eguna.

GARAI • JONE GUENETXEA

Garaiko V. Sagardo Eguna ospatuko dute martxoaren 25ean, 18:30etik aurrera. Aurten, nobedade legez, eguraldi ona egiten badu plazan izango da, eta euria egiten badu, osteria, frontoian.

Urteak dira garaitar talde bat Oiartzungo Kiltziki baserrira joaten dela sagarrak batu eta sagardoaren ekoizpen prozesuan parte hartzera. Sagardo hori izango da

Garain dastatu ahal izango dena. Aurten, Mallabiko Zengotita auzoko Leixarra baserriko sagardoa ere egongo da.

Aurreko edizioetan legez, edalontzia bost euro ordainduta gura beste jan eta edan ahal izango da. Sagardoaz gainera, gazta, intxaurrak eta parrillan prestaturiko urdaia egongo dira.

Giroa alaitzeko, DJ Bullek musika ipiniko du Garain.

Berrizko Udalak furgoi elektriko bat erosi du brigadak erabili dezan

BERRIZ • J.G.

Joan den astetik, udal zerbitzuetako ibilgailu elektrikoek flotak tamaina handiagoko furgoi berri bat du, kasu honetan udal brigadan zerbitzua emango duena. Furgoia 4 urterako renting-eant hartu dute, 76.317,12 eurogaitik. Urtebeteko luzapena ere badute, aukeran.

Erosketa hau udalak bere zerbitzuetan dituen beste bost ibilgailu elektrikorik gehitu behar zaie

Erosketa berri hau udalak bere zerbitzuetan dituen beste bost ibilgailu elektrikorik gehitu behar zaie. Obretako brigadak lau erabiltzen ditu, udaltzaingoak beste bat, eta lorezaintza zerbitzuak azkena; azken hori zerbitzuaren baldintza ageritan eskatzen den moduan.

Kalejira, txistu kontzertua eta gehiago domeka honetan Otxandion, Durangaldeko Txistulari Egunean

Otxandioko txistulariek antolaturiko ekimenean, eskualdeko nahiz eskualdetik kanpoko txistulariak batuko dira



Otxandioko Kaleik kale txistulari taldeko kideak, Otxandioko plazan.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Iaz Mañarian egin zuten eta aurten Otxandiok hartuko du erreleboa. Domeka honetan Durangaldeko Txistulari Egunaren 67. aldia egingo dute Otxandion. Herriko txistulariek antolatu dute ekime-

na, udaleko Jaizale elkartearen eta Andresa Landa fundazioaren laguntzagaz. Goizean, 10:30ean, entsegu bategaz hasiko dute eguna, eta 12:00etan kalejiran irtengo dute jai giroa kalerik kale zabaldua.

13:00etan Andikona plazan batuko dira eta hantxe emango dute kontzertua. Euria egiten badu, Santa Marina elizara tokialdatuko dute ekimena. Kontzertu honetan Otxandioko Kaleik kale txistulari taldea arituko da, baina, ohikoa

den moduan, Durangaldeko eta beste hainbat herritako txistulariak ere batuko dira. Aurten, Iurretako, Durangoko, Berrizko, Abadiñoko, Elorrioko, Mañariko eta Markinako txistulariek ere parte hartuko dute eta Gasteizko txistulariak ere etorriko direla aurreratu dute antolatzaileek. Kepa Pinedok egingo ditu zuzendari lanak.

12:00etan kalejiran irtengo dute, eta 13:00etan Andikona plazan batuko dira kontzerturako

Txistulariak ez dira bakarrik arituko. Izan ere, Oihandi Abesbatzak, Urduri dantza taldeak, metal boskote batek, abeslariak eta gazte talde batek ere parte hartuko dute ekimenean. Ondoren, 15:00etan, parte hartzaile guztiek bazkaria izango dute elkarregaz Bolalekuan, eta horregaz emango diote amaiera aurtengo aldiari.

Umeentzako jolasak, xake ikastaroa eta ikus-entzuneko emanaldia Mallabian

MALLABIA • J.D.
Mallabia Kirol Elkartek umeei begirako ekintzak egingo ditu domekan. Goizean, 11:00 inguruan, eskolan batu eta arku-tiroa eta bolo-jaurtiketa egingo dituzte, besteak beste. Ondoren, luntx bat egongo da bertaratzen direnentzat. Mallabia Kirol Elkartek hilean behin antolatzen du ekimen hau, eta 5etik 13 urtera arteko hogeitahaur batzen dira, batez beste. Arratsaldean ere bada- go zertaz gozatu Mallabiko Kontzejuzarrean. Lehenengo, 16:00etan, bingo saio bat egingo dute. Ondoren, xake ikastaroa hasiko da eta ikus-entzunezko bat eskainita errematatuko dute eguna. Xake ikastaroa izaten ari den harreragaz gustura daude antolatzaileak, hamabi bat ume batzen dituelako batez beste. Xake ikastaroaren aurretik domino ikastaroa egin zuten eta horretan oraindino ume gehiago batu zen.

Izurtzako nagusien elkarteak urteko batzar orokorra egingo du domekan

IZURTZA • J.D.
Izurtzako Erdoitzako Ama nagusien elkarteak urteko batzar orokorra egingo du domeka honetan, 13:00etan, jubilatuen lokalean. Iazko kontuen balantzea egin eta iaz egindako ekimenak baloratuko dituzte bertan. Horrez gainera, aurtengo ekimenen gainean ere eztabaidatuko dute. Aurtengo maiatzean Nafarroara, Lizarra ingurura, irteera bat egitea proposatuko dute domekako batzarrean. Jubilatuen elkarteak 43 bazkide ditu.



Nagusien elkarteak Izurtzako plazaren ondoan duen lokalean egingo dute batzarra.

Umeentzako jolasak eta nagusientzako zumba Mañarian

Andra Mari aisialdi eta kultur elkarteak 'Udaberriko Jolasak' ekimena antolatu du zapatu honetarako

MAÑARIA • J.D.
Mañariko Andra Mari aisialdi eta kultur elkarteak 'Udaberriko Jolasak' ekimena antolatu du zapatu arratsalderako. Umeentzako jolasak egingo dituzte lehenengo, eta nagusientzako zumba maratokia egongo da ondoren. 16:00etan, 3tik 14 urtera bitarteko umeei begirako jolasak egingo dituzte, plazan; hala nola herri kirolak, boleibol partiduak, txapak, kanikak, ohe elastikoa, bizikleta lehiaketa eta abar. Umeen jolasen ondoren, nagusien txanda izango da. Izan ere, 18:30 inguruan, nagusientzako zumba maratoiari hasiera emango diote bertaratzen direnekin. Biharkoa ez da Andra Mari aisialdi eta kultur elkarteak martxoan zehar egingo duen ekimen bakarra. Hurrengo asteburuan, martxoaren 26ko domekan, pelikula bat ikusteko aukera egongo da liburutegi zaharrean.

bertako

igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik /hileko

IGOGAILUEN

MANTENTZE-LANEN

ESKAINITZA

ZORROTZENA

+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

946 523 935

bertako.eus

Martxoaren 23an "hezkuntza euskaldun baten alde" mobilizatzera deitu dute

Ikasle euskaltzaleek manifestazioak egingo dituzte Hego Euskal Herriko hiriburuetan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Gazte euskaltzaleen sareak eta unibertsitateko euskara taldeek protesta egingo dute martxoaren 23an, "hezkuntza euskaldun baten alde". "Ikasketak euskaraz egitea oztopoz beteriko zoru baten gainean ibiltzea" dela diote, eta horren erantzule egin dituzte azken boladako "eskubide urraketa etengabeak". "Euskaraz ikasten dugula esaten den arren, hezkuntza prozesu hori ezin dugu sekula ere %100ean euskaraz gauzatu: irakasle euskaldunen falta, euskarazko



zerbitzu eza, euskaratu bako material didaktikoaren etengabeko erabilera eta euskarazko ikasketen eskaintza eza urterik urte pairatzen ditugun eskubide urraketak dira", kritikatu dute hedabideetara bidalitako oharrean.

Bigarren mailako hizkuntza

Egoeragaz "kezkatuta" daudela azaldu dute, eta ez direla "besoak gurutzatuta" geratuko gaineratu. "Euskal Herrian euskarak bigarren mailako hizkuntza trataera jasan ezin duen moduan, euskaldunok ezin dugu bigarren mailako biztanle izan Euskal Herrian", adierazi dute. Hori dela eta, martxoaren 23rako Hego Euskal Herriko hiriburuetan antolatu dituzten manifestazioetara joatera deitu dituzte herritarrek.

Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



#MeToo

Bai! Ni ere Podemosekoa izan nintzen. Ezin dut hori ukatu. 2014an, ustelkeriaren eta txiringitoen aurka borrokatzea proposatzen zuen proiektu batean parte hartzea erabaki nuen. Proiektu horrek herrien erabakitzeko eskubidearen alde egin zuen, eta erabakiak behetik hartzen ziren. 2015ean, Madriletik Podemos markarekin udal hauteskundee-tan ezin ginela aurkeztu erabaki zutenean, Herriaren Eskubidea osatzea erabaki genuen. Horrela, ustekabea, Durangon erabakiak hartzeko udal-hautagaitza independente baten garrantzia ikusi nuen.

Eta horrela hasi nintzen Estatuko politikatik askatzen. Desberdintasun etikoak izateaz gain, partekatzen ez ditudan erabaki politikoak eta antolakuntzakoak hartu ziren: Madrildik eta goitik hartutako erabakiak, federalismoaren aldeko apustua, postuak betetzeko laguntasunak, herri bakoitzaren mugimendu sozialen berezitasuna ez ulertzea, etab.

Podemos utzi nuen, desberdintasun gehiago nituelako adostasunak baino. Baina ez nuen politikarekin erlazioa apurtu. Herriaren Eskubidearekin behin "maitemindu" ninduten gaien alde lan egiten genuen: ustelkeriaren eta txiringitoen aurkako borroka (bi epai judizial irregulartasunengatik – Uribarri 23 eta PERI –, erabakitzeko eskubidea (herri kontsulta), Durangoko bizilagun gisa bizipenetik hartutako erabakiak eta elkar-teekin topaketak, etab.

Horregatik, Herriaren Eskubidean lanean jarraituko dut beste alderdi batzuek herentzia utzi duguten itoginei amaiera emateko.

Durangotik erabakitzeko eskubidea herriaren eskubidea delako.

Durangaldea asteen

Durangoko TADUko aparkalekuak 24.000 erabiltzaile izan ditu hiru hilabeteen

DURANGO | Durangoko Udalak jakinarazi duenez, TADUko aparkalekuak 24.000 erabiltzaile izan ditu azpiegitura martxan ipini zenetik hona. Egunean 267 ibilgailuk erabiltzen dute azpiegitura, batez beste. Hau da, aparkatzeko leku bakoitza ibilgailu bik erabiltzen dute egunean, gutxi gorabehera. Udalak dio herriguneko trafikoa "murritu" egin dela aparkalekuari eskerrak.



Dagoeneko zabalik dago Elorrioko Ferixa Nausiko kartel lehiaketarako izen-ematea

ELORRIO | Irailaren 2tik 10era bitartean ospatuko diren Ferixa Nausikoak iragartzeko kartel lehiaketa martxan da dagoeneko. Diseinu irabazlea jaietako kartel lege zein esku programaren azalerako erabiliko da, eta irabazleak 500 euroko saria eskuratu-ko du. Aurkezturiko gainerako kartel guztiak ere jaietako esku egitarauan agertuko dira.



Gotx elektrotzaranga, Xiberoots, Buhos eta Dupla, bihar, Zornotzako IX. Gazte Egunean

ZORNOTZA | Bihar Zornotzako IX. Gazte Eguna ospatuko dute. 12:09an emango diote hasiera egitarauari, txupinazoagaz. Horren ondoren, karropoteoa egongo da, eta bazkaria gero. Bazkalostean, Andoni Ollokiegik kontzertua emango du eta 18:39an Gotx elektrotzarangaren txanda izango da. 22:09an, Xiberoots, Buhos eta Dupla taldeek kontzertua emango dute.

Gazte Egunerako motorrak berotzeko, gaur kontzertuak egongo dira: 19:09an Supercremalleras taldea arituko da, 20:29an Very Txarrak taldea, eta 22:09an Zutik erromeria.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa



ZENBATU ITZAZU


Zenbatu behean dauden animaliak eta ipini zenbakia bakoitzari dagokion laukitxoan.














MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan eta moztu ezazu marratxoetatik maskara hau.



PAREAK EGIN

Topatu globo bakoitzaren bikotekidea.





Kafeminista literarioa

TERTULIA BERRIZ :: MARTXOAK 23

Uxue Alberdi Berrizen

Berrizko Azeri Gorriak talde feministak antolatuta, Kafe-minista literarioa egongo da, martxoaren 23an, Gaztelekuan. Berrizko Udalaren Berdintasun Sailaren laguntzagaz hiru hitzordu prestatu dituzte. Arantxa Urretabizkaia gonbidatu zuten, otsailean, *Azken etxea* liburua aurkeztera, eta martxoan Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria etorriko da. *Jenisjoplin* liburua izango da 18:00etan hasiko den tertuliaren ardatza. Maiatzean, Leire Milikua abadiñarrak

Itzal azpian liburua aurkeztuko du. Parte hartzea debaldekoa da, baina izena eman beharko da, liburutegian edo *azerigorriak@gmail.com* helbidean. "Hirurak oso ahots interesgarriak iruditzen zaizkigu, eta, era berean, profil desberdinetako jendearentzat erakargarriak izan daitezkeen lanak aukeratzen ahalegindu gara. Bestela berba egingo ez genukeen gaiez berba egiteko abiapuntua izan daitezke liburu hauek", diote talde feministako kideek.

Martxoaren 17an

ABADIÑO antzerkia
‘PIZTU EmakumeON Energia’ (Eidabe), 17:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia
‘Ping-Pang’ (Xabi Larrea), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO solasaldia
Solasaldi literario feminista: ‘Petare, Miren Azkarateren puxkak’ (Leire Ibarguren), 19:00etan, Andragunean.

ELORRIO kontzertua
Nevadah + Perlata, 22:30ean, Ateneoan.

IURRETA antzerkia
‘La Reina del Arga’ (Quiero Teatro), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia
‘El nadador de aguas abiertas’ (K Producciones), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Zornotzako IX. Gazte Eguna. Supercremalleras, 19:09an, Zubiondo parkean.
Very Txarrak, 20:29an.
Zutik erromeria, 22:09an.

Martxoaren 18an

DURANGO lehiaketa
Abesti feministen V. Lehiaketa. Finalisten kontzertua. Plateruena kultur aterpean.

ELORRIO lehiaketa
Akadantza XV. Kale Dantzen Lehiaketa, 17:30ean, Arriola antzokian.

ELORRIO kontzertua
Mocker’s + Trini Fox, 22:30ean, Elorrioko Gaztetxean.

IURRETA jaialdia
Mouso Ka Do, Maliko Emakumeen Nazioarteko Eguna.
Argazki erakusketa, 16:00etan, Askondon. Fasoden Maliko elkarteak antolatuta.
Maliko dantza tradizionalen erakustaldia, 18:00etan.

IURRETA musika
Mikel Inuntziaga ‘Inun’, 18:00etan, San Marko auzoan. Auzorik Auzo kultur egitaraua.

ZORNOTZA ipuinak
‘Zu eta ni berdin’ (Lupe Lekuona) umeentzako ipuin kontaketa, 12:00etan, udal liburutegian.

ZORNOTZA musika
Zornotzako IX. Gazte Eguna.
Txupinazoa, 12:09an, Zubiondo parkean.
Txistulariak, gaiteroak, erraldoiak eta zanpantzarrak. Karropoteoa eta bazkaria (txartelak 10 euroan Urtzan).
Andoni Ollokiegi, 16:09an.
Gotx elektrotzaranga, 18:39an.
Xiberoots + Dupla +Buhos, 22:09an.

Martxoaren 19an

ABADIÑO kontzertua
Willis Drumond, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO antzerkia
‘Munduari itzulia 80 egunetan’ (Glu Glu Produksioak), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
‘Ping pang’ (Xabi Larrea), 17:00etan, Arriola antzokian.

Martxoaren 19a bitartean

DURANGO erakusketa
‘Egiteko duguna’ erakusketa (Cristina Gutiérrez Meurs), Arte eta Historia Museoa.

Martxoaren 22an

DURANGO literatura
‘Baubo’ (Beatriz Egizabal), 19:00etan,Bizenta Mogel bibliotekan.

Martxoaren 23an

DURANGO musika
‘Hegoak’ (Garbiñe Insausti, Iñaki Salvador eta Maider Zapirain), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Martxoaren 24an

DURANGO dokumentala
‘Trenak ekarritakoak’ (Zuz: Txelu Angoitia), 19:00etan. Jon Maiak zuzenduko du ekitaldia eta Xabier Aierdik berbaldia.

ELORRIO antzerkia
‘Familia sarekada’ (Vaiven Producciones), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Alderray’ (Tartean konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA bertsoak
Durungaldea Uztabarritzen III. Bertso Zirkuitua: Ander Aldazabal, Ander Sarriugarte, Igor Elortza eta Alaia Martin, 19:00etan, Zelaieta zentroan. Gaijartzailea: Jon Ander Urkiaga.

Martxoaren 31a bitartean

ZORNOTZA erakusketa
‘Mercedes, bakardade ikusiezina’ (Ruben Orozco artista mexikarraren eskultura) eta ‘Azukrearen garratza’ (Iñaki Mendizabalen argazki bilduma) Zelaieta Zentroan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: **Abadiño**
ERROTA KULTUR ETXEAN

• **Irati**
zapatua 18: 19:00

• **Yuku eta Himalayako lorea**
domeka 19: 17:00

:: **Berriz**
KULTUR ETXEAN

• **Los Fabelman**
barikua 17: 19:30
domeka 19: 19:00

:: **Durango**
ZUGAZA ZINEMA

• **¡Shazam! La furia de los dioses**

barikua 17: 18:15 / 21:00
zapatua 18: 16:45/ 19:30 / 21:30
domeka 19: 17:00 / 19:45
astelehena 20: 17:45 / 20:15
martitzena 21: 17:45 / 20:15
eguzatena 22: 19:00

• **Los reyes del mundo**

barikua 17: 18:30 / 21:00
zapatua 18: 19:30
domeka 19: 19:45
astelehena 20: 18:00 /20:15
martitzena 21: 18:00 /20:15
eguzatena 22: 19:00

• **Bajo terapia**

barikua 17: 18:30/ 21:00
zapatua 18: 19:30 / 21:30
domeka 19: 19:45
astelehena 20: 18:00 / 20:15
martitzena 21: 18:00 / 20:15

• **Violeta. El hada traviesa**

zapatua 18: 17:15
domeka 19: 17:30

• **Los demonios de barro**

zapatua 18: 17:15
domeka 19: 17:30

• **Turandot (opera)**

eguzatena 22: 20:15

::**Elorrio**
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Los hijos de otros**

zapatua 18: 20:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00

::**Zornotza**
ZORNOTZA ARETOA

• **Irati (JBGA)**

zapatua 18: 20:00

domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:15

• **Momiak**

zapatua 18: 17:00
domeka 19: 17:00

• **La emperatriz rebelde (JBGA)**
martitzena 21: 20:15

• **Noémie dit oui (JBGA)**

eguna 23: 20:00



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

 **anboto**
kide

Julio Vernereren 'Munduari itzulia 80 egunetan' klasikoaren berrikuspena Durangora heldu da

Domekan emanaldi bi egingo dituzte, Durangoko San Agustin kulturgunean; 12:30ean eta 18:00etan izango dira saioak



Glu glu konpainia.

ANTZERKIA • A. M.

Glu glu konpainiaren *Munduari itzulia 80 egunetan* antzezlanak dantza, musika eta antzerkia batzen ditu. Julio Vernereren klasikoa hartu eta beste berrinterpretazio bat planteatzen du, garaikideagoa. "Trama nagusia gure errealitatera egokitu dugu. Horrela, munduari bira berezia izango da gurea, etxetik irten bako abentura. Izan ere, protagonistek etxeko elementuekin eta irudimena astinduz egingo dute bidaia", azaldu du Ugaitz Alegria zuzendariak. Itoitz eta Urdiñe neba-arrebak Passepartout eta Auoda osaba-izeben etxean daude opor batzuk pasatzen; bertan daudela, Julio Vernereren *Munduari itzulia 80 egunetan* liburua irakurriko dute, eta umeek diote ez dela beharrezkoa munduan zehar bidaiatzea jatorri eta arraza desberdinetako pertsonak ezagutzeko. Passepartout zirku-ko akrobata da, munduan zehar

ibilitakoa; eta Auoda baliabide gutxiko herrialdeetan lan egin izan duen medikua. Lauren artean, abentura polita biziko dute. Andrea Covadonga, Sara Barroeta, Leire Ormazabal eta Jon Casamayor dira aktoreak; Galder Perez arduratu da moldaketaz. 80 egunetan barik, 80 minutuan munduko ohiturak eta aberastakun kulturala ezagutuko dituzte, besteak beste, San Agustinera doazen antzerkizaleek.

80 egunetan barik, 80 minutuan munduko txoko desberdinak bisitatuko dituzte protagonistek

Estreinua, Zornotzan

Glu glu konpainiaren antzezlan berri hau irailean estreinatu zuten, Zornotzan, Zornotza Aretoaren denboraldi berriari ekiteko. Ordutik, dozenaka emanaldi egin dituzte; besteak beste, Donostian, Bilboko Euskaldunan eta Berrizko Kultur Etxean. Durangoko San Agustin kulturgunean saio bikoitza egongo da asteburuan, domekan.

Willis Drummondek hamaika kontzertu emango ditu hiru asteburutan, euretariko bat Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan

MUSIKA • A. M.

Willis Drummond talde ezagunak bira berezia antolatu du martxorako. Hiru asteburutan hamaika kontzertu emango dituzte, ohiko biretan bisitatzen ez dituzten "toki alternatiboetan"; Gure Tokiak Tour II birako geltokietariko bat Abadiñoko Amaraun Arte Fabrika da. Kontzertua joko dute bertan, domekan, 13:30ean. Emanaldirako sarrera guztiak salduta daude eta, antolatzaileen esanetan, egunean bertan ez da sarrera gehiago sal-

duko. Musika taldeak bere ibilbide oparoko zazpigarren diskoa aurkeztuko du bertan, *Hala ere*. Oraintsu, kontzertu sorta eman dute Hego Korean eta Japonian. *Hala ere* diskoa kontraesanaren ideiak zeharkatzen duela azaldu du taldeak, eta 70eko eta 90eko hamarkadetako ezaugarriak batzen ditu, Willis Drummondek propio duen soinuaz gainera.

Gaur egun, lau kidek osatzen dute taldea berriro ere. Jurki Ekiza (ahotsa eta gitarra), Xan Bidegain

(baxua) eta Felix Buff (bateria eta perkusioak) taldekideei Vincent Bestaven batu zaie (gitarra eta teklatuak); Petit Fantome, Botibol eta Rudiger taldeetan ere jo izan du, azken honetan Buffegaz batera.

Apirilean, Dube

Apirilean, Dube talde berriztarrak emango du kontzertua Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan; sarrerak bost euroan erosi ahalko dira aurretik. Egunean bertan zazpi euro ordaindu beharko dira.



Willis Drummond.

Musika eta poesia

Dana Moya eta Miren Agur Meabe

2023 MARTXOAK 24 19:00

SARRERA GONBIDAPENAREKIN

94 681 27 26 688 863 736

biblioteka@iurreta.eus

Iurreta Eleizateko Udala HERRI BIBLIOTEKA

ABADIÑO

Gaur egun zabalik dagoen eta ibilbide luzea duen ile-apaindegia alokatzen da. Laser zerbitzua ere badu.

Gela bat berralokatzeko aukera ere badago.

397'60€ BEZa barne

Tel.: 603 01 10 69



Artxiboko irudia.

Zapatuan Akadantz dantza lehiaketa jokatu da Elorrion

Zapatuan izango da Elorrioko dantza lehiaketa; Break on stage maiatzaren 6an izango da

DANTZA • A. M.
Euskal Herriko dantza jaialdirik ezagunenetarikoa den Break On Stage jaialdian dantza egin gura dutenak Elorrioko Akadantz lehiaketan arituko dira zapatuan. Akadantzen lehiatuko direnek funky, house, urban dance, hip hop, break dance, locking eta popping doinuekin erakutsiko dute euren gaitasuna. Lehia egon badagoen arren —Barakaldon maiatzaren 6an izango den jaialdian parte hartuko du irabazleak— erritmo urbanoen zaleen topagunea dira, batez ere, Akadantz eta Break On Stage.

“Taldeek lan egiten jarraitzea bultzatu gura dugu eta uste dugu horretarako aukera ona dela Arriolaren moduko antzoki batean euren lanak erakutsi ahal izatea”, diote Elorrioko Arriolatik. Protagonisten dantzak baloratzeko, hainbat gaitasun puntuatuko dute: originaltasuna, sormena, koreografiak egiteko trebezia, eta musika sinkronia.

Akadantz jaialdia zapatuan izango da, 17:30ean, Arriola aretoan. Sarrera guztiak saldu ta daude jada. Break On Stage jaialdia jaio zen; hala ere, azken urteetan Bilbon eta Barakaldon

egin izan da; Europan oihartzu-na duen jaialdia da.

Jaialdia, Barakaldon
Break On Stage jaialdia Barakaldon egingo da beste urte batez. Antolatzailerak egun osoko jaialdia prestatu dute, dantzazaleen gozamenarako. 14:00etan hasita, dantza borrokak egongo dira frontoian; 16:00etan, scooterren freestyle erakustaldiak egingo dituzte, Lasearreko skate parkean. Bestalde, 18:00etan dantza jaialdia izango da, Barakaldo antzokian. Eguna borobiltzeko, 20:00etan kontzertua egongo da, herriko plazan.

Inunek kontzertua emango du Oromiñon, San Markon

Musikari zornotzarrak 'Auzorik auzo' ekitaldi sortaren barruan emango du kontzertua, 18:00etan

MUSIKA • A. M.
Mikel Inuntziaga 'Inun' musikari zornotzarrak kontzertua joko du asteburuan Iurretako Oromiño auzoan; emanaldia zapatuan izango da, martxoak 18, 18:00etan. Musikari zornotzarrak zuzeneko freskoa eta dinamikoa du, kantak jotzeaz gainera, sormenagaz eta euskaragaz lotura duten jolasak proposatzen dituelako. Besteak beste, oraintsu kaleratu duen *Be music my friend* joko du; azken abesti hori Sergio Mayoral tronpetistagaz batera grabatu du. *Auzorik auzo* ekimena orain dela zazpi urte ipini zuen martxan Iurretako Udalak, auzoetan ere zuzeneko musika sustatzeko eta udalerriko txokoak ezagutarazteko asmoagaz. Apirilaren 1ean Esti Marquez musikariak emango du kontzertua; artista gipuzkoarra *Hitzekin jolasean* diskoa aurkezttera etorriko da Iurretara. Hibai Etxeberriak eman zuen zikloko lehenengo kontzertua.



Inun.

Gai librean

Kafe usaina

Lagunak “behar duzunean, deitu” diotsu. Gezurra da; benetan, zera esan guran dabil: “Behar duzunean, deitu; baina domeketan ez”. Gaztaroan igandero plan berdina egiten genuen: kafea eskatu eta tabernan egoten ginen hiruzpalau ordutik, euro bat eta pikuren truke. Gai antzekoak jorratzen genituen normalean, beti izan gara ortodoxoegiak agian. Unibertsitateko lanen karga, gurasoekin izandako eztabaidak, militantziako ardura bat edo beste, kuadrillako liskarren bat, orduko ligeen gorabeherak...

Urteak aurrera doaz, eta helduaroa ate-joka daukadan garaian, igandeek jada ez daukate kafe usainik. Kontua galdu dut zenbat domeka arratsalde eman ditudan etxean pantailari so, inporta ez zaidan narrazioren baten



Miren Erdoiza Mujika Irakaslea

Domeketan ez dago planik. Domeketan hilda gaude. Domekek usaina galdu dute

menpe. Domeketan ez dago planik. Domeketan hilda gaude. Domekek usaina galdu dute.

Izan ere, asteko zazpigarren egunean, Atxondoko bidegorria nabarmen estutzen da. Hainbeste estutzen da ze, laguna eta bere nobioarentzat bakarrik dago lekua; tira, eta astelehenetik zapatuta bitarte existitzen ez den baina beraiekin bizi den txakurarentzat. Bukatu dira, beraz, paseo terapeutiko txandaleroak. Lagunaren etxeko sofa beti izan da

ajearen aurkako gudu-zelaia. Orain, hogeita hamarrek parez pare ditugun honetan, lagunak burkidea laga eta burko-kidea aukeratu du. Ez dago denontzat tokirik mantapean. Janaria beti izan da plazer iturri, baina garaiotan sushi-bandejak bi pertsonarentzat prestatzen dituzte bakarrik. Asmatu duzu jada bandejak nor duen jabe, ezta? Domeketan ez da “ni”-a existitzen, “gu”-ak hartu dio testigua. Whatsappak lehenengo pertsonako pluralean idazten dizkizu lagunak: “etxien gauz”; “pasiuen goiez”; “bazkaixe deku”.

Esperantza da galtzen den azkena, hori diote behintzat. Bizitza ziklikoa dela sinisten dute batzuek, eta horretan nabil ni aspaldian. Gaztetan Alde Zaharrean hartutako kafeak ere itzuliko dira. Horren lekuko dira Ezkurdi-ko terrazetako (a)la(r)gunak.



Abadiño Sokatira Taldeko gazteak Abadiño udal txanetan, joan zen martitzenean.

Munduko txapelkun gazteek ondo merezitako omenaldia jaso dute

Abadiño Udalak harrera egin die Abadiño Sokatira Taldeko gazteei udaletxean, Belfasten (Irlanda) lehiatu den munduko txapelketan urrezko hiru domina irabazi ostean

SOKATIRA • J.DERTEANO

Abadiño Sokatira Taldeko gazteek ondo merezitako omenaldiak jaso-tzen dabilta joan zen asteko lorpenaren ondoren. Belfastko munduko txapelketan urrezko hiru domina irabazi zituzten, hirurak 23 urtez azpiko mailan: 560 kilora arteko mistoan, emakumeen 500 kilora artekoan eta gizonen 600 kilora artekoan.

Protagonistei izen-abizenak ipinita, honako hauek dira: Irati Abarrategi, Olatz Abarrategi, Amair Uriarte, Andrea Diaz, Martxel Azkorbebeitia, Aitor Bilbao, Unai Bilbao, Maui Mandaluniz, Beñat Urzubiaga, Oier Mendizabal, Iker Mendizabal, Peio Iriondo eta Josu Landa. Lehenengo sorpresa Loiuko aireportuan bertan jaso zuten, Bel-

fastetik bueltan. Hainbat herritar zain zituzten, ongi torria egin eta koplak batzuk abesteko. Honela dio kopletarik batek: *Bukaerara heldute / zuei dana eskertute / sokiek segidu deid-xela ai / gure gerrir lotute / ta bidxotza berotute.*

Datorren urtean beste munduko txapelketa batean aritzeko aukera izango dute, Suedian

Bestalde, martitzenean harrera instituzionalaren txanda izan zen. Udalak ekitaldi bat prestatu zuen sokatiralari gazteak udaletxean omentzeko. Hainbat herritar ere batu zen bertara. Mikel Garaizabal

alkateak zorionak eman zizkien lorpenengaitik, eta kirolaren bitartez transmititzen dituzten balioak azpimarratu zituen. Txaloe ondoren, udalak txapel bat oparitu zion taldeari. Buru asko eta txapel bakarra egotera, han zeudenek Aitor Bilbao aukeratu zuten txapela janzteko, bera delako sokatiralari-rik gazteena, 17 urte gaz.

Aurrera begira, "motibatuta" eta "txapelketetan parte hartzeko asmoz" daudela adierazi zuen Irati Abarrategik. Entrenatzen jarraitzeko pizgarri bat datorren urtean bertan dute, beste munduko txapelketa bat izango da eta, Suedian. Orain, goma gaineko denboraldia amaituta, lur gainean arituko dira tiralarari batzuk, Abarrategi bera kasu.



Abadiño tiralarari gazteak Belfasten, irabazitako dominekin.

Martxoaren 8tik aurrera

berria
fm

PODCASTA

UXUE Rey

ANE Eslaba

Ziklo berria

Kazetaritza feminista
erraietan eta uhinetan

Hamabostean behin, asteazkenez,
Berria.eus/podcast webgunean eta plataformetan entzungai.

Abadiño Xake Taldea txapeldun geratu da Ohorezko Mailan, Euskadiko liga nagusian

Abadiño Euskadiko xakearen tontorrera eramateaz batera, Ibon Martin, Alain Prieto, Jon Lagos eta Unai Calvo xakelariak klubaren historiara pasatu dira, aurretik sekula lortu bako txapelketa delako. Espainiako txapelketara ere sailkatu dira

XAKEA • JOSEBA DERTEANO

Abadiño Xake Taldeak Euskadiko liga nagusia den Ohorezko Maila irabazi zuen joan zen asteburuan. Bestela esanda, aurten Euskadin egon den klubik onena Abadiñokoa izan da. Lorpenak balio handiagoa hartzen du honako hau jakinda: klub batzuk ordainpeko xakelari maisuekin aritzen dira eta Abadiño, oster, etxekoekin. "Futbolearen Eibarrek liga irabaztearen parekoa izan da", esplikatu du Abadiño Xake Taldeko Ibon Martinek aurtengo lorpena.

Ibon Martin abadiñarrak eta Alain Prieto, Jon Lagos eta Unai Calvo durangarrek gauzatu dute mirari txiki hau. Lehenengo biak esperientzia handiko eta ibilbide luzeko xakelariak dira. Beste biak gazteagoak dira. Lagok 23 urte ditu eta gazte mailetakoa adin tarte guztietan Euskadiko txapeldun izan da. Calvo klubeko harribitxietariko bat da, 16 urte gaz, eta honek ere badaki azpiko mailetan Euskadiko txapeldun geratzea zer den.

Abadiñoren lorpena faktore bik azaltzen dute. Batetik, "guk espero baino puntu gehiago lortu dugu", dio Martinek. Hau da, goi mailan aritu direla. Azken jardunaldia da horren adibide: Abadiñok 4-0 iraba-



Ezkerreko aldean Abadiño Xake Taldeko Jon Lagos eta Alain Prieto (atzean), ligako partida batean.

zi zion teorian bere maila paretsukoa den Bilboko Conteneo taldeari. Bestetik, beste klub batzuk "euren mailatik behera" ibili dira, Donostiako Gros kluba kasu, zeinak besteak beste nazioarte mailako xakelari bi zituen bere taldean. Ohorezko Mailako garaipen honi eskerrak, abuztuan Espainiako txapelketan aritzeko eskubidea lortu du Abadiñok.

Durungaldeak beste ordezkari bat ere izan du Ohorezko Mailan: Zornotza Xake Taldea. Zornotzarrek sailkapenaren erdian amaitu dute liga. Durangaldeko beste klub biak, Zaldi Baltza eta Larrasoloeta, Bizkaiko Maila Gorenean dabilta.

Azken jardunaldia baino ez da falta liga hori amaitzeko. Elorrioko Zaldi Baltza bigarren tokian dago une honetan, eta ez du Sestao liderra harrapatzeko aukerarik. Bestalde, Durangoko Larrasoloeta beherago dago sailkapenean, baina ez luke arazorik izan behar mailari eusteko.

Elordi binakako bigarren puntuaren bila, Labriten

PILOTA • J.D.

Aitor Elordi mallabitarrak eta Jose Javier Zabaletak garaipen bategaz hasi dute binakako txapelketako finalerdietako ligaxka: 22-14, Peñaren eta Mariezurrenaren kontra. Zapatu honetan, Iruñeko Labriten, lehenengo jardunaldiko beste irabazleak izango dituzte aurrez aurre: Laso eta Imaz. Bikote irabazleak hanka eta erdi izango du finalean.

Biharko partidua irabaziz gero, Elordik eta Zabale-tak hanka eta erdi izango dute finalean

Morgaetxebarria

Aimar Morgaetxebarria zornotzarra ere bikain dabil; kasu honetan, Promozio Mailan. Finalerdietako ligaxkara sailkatzea lortu du bere lehenengo parte hartzean. Zoritzarrez, Bakaikoak eta bieki galdu egin zuten ligaxkako lehenengo partidua, eta gaur gauean nahitaez irabazi behar dute Zeanurin, Salaberriaren eta Etxebarriaren aurka.

Jokaldia

Anbotokide

Beste testu bat nuen idatzita, *Sariak* izenburukoa (hurrengo zutaberako gordeko dut), baina bien bitartean sari bat egokitu zait, asteburu berezi honi erremate ederra eman diona, eta hori partekatu gura dut Anbotoko irakurleekin.

Asteburu berezia izan da niretzat, bai. Gure familiarentzat. Aita zenari, 'Azkorbe'-ri, azken agurra egin diogu herrian, eta horregatik izan da berezia. Zapatuan omenalditxo egin genion herriko frontoian, eta, zer esan! Itzela izan zela, besterik ez. Eskerrik asko etorri zineten denoi. Domekan, aita jaiotako baserrian, Urkiolako Letonakortan (*Txabolakoa* guretzat), pago bat landatu eta aitaren errautsak lurperatu genituen familia artekoak.



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Txixiburduntzia eginda eman genion amaiera Urkiolako ekitaldiari.

Urkiolatik bueltan, arropa usaintsuak erantzi, dutxa bat hartu, eta Bilborako bidea hartu nuen Alluitz

Asteburu berezia izan da gure familiarentzat. Aita zenari, 'Azkorbe'-ri, azken agurra egin diogu herrian

semeagaz. Dotore-dotore joan ginen, San Mamesera, hango palkora, Athleticen eta Bartzelonaren arteko partidua ikustera, Alluitz Athleticeko kamisetagaz eta bufandagaz, eta ni Zorrotz-eko kamiseta jantzita. Ez naiz oso futbolzalea, semea bai, baina Anbotokide izateagatik sarrera bi ego-

kitu zitzaizkidan zozketan, eta ezin, ba, Anbotok ematen duen aukera eder hori galdu. Giroa mundiala izan zen futbol zelaian, eta gure kasuan, gainera, nahi beste jan-edan izan genuen aukeran, doan. Ondo berdindu nuen sabela, kalimotxo eder eta guzti. Se-meak izozki bigaz nahikoa izan zuen.

Anbotokide izateak abantaila asko du; Durangaldeko hainbat denda eta komertziotan merkeago erosi ditza-kegu produktuak, hainbat zozketatan parte hartu dezakegu, eta, bide batez, Anbotokide izanda bultzada handia ematen diogu Anbotori, Durangaldean euskara hutsez idatzitako astekari bakarrari. Ni neu harro nago proiektu horren parte izanda (aita ere bazen), eta denak animatu gura nituzke Anbotokide egin daitezen, merezi du eta.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Botikak	
BARIKUA, 17 · 09:00-09:00	09:00-22:00
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 20 · 09:00-09:00
09:00-22:00	MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 18 · 09:00-09:00	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 21 · 09:00-09:00
09:00-13:30	BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI, J.A.ABASOLO 2 - DURANGO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 22 09:00-09:00
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA, BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO	NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 23 · 09:00-09:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
09:00-22:00	GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 19 · 09:00-09:00	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Unax!** Martxoan 3 urte egin dituzu. Asko maite zaitugu. Jarraitu hain polita izaten. Musu handi bat zure familiaren partez.



Zorionak, euren urtegunagaitik, canarinhako selekzioko bi izarren aitite eta amama izengo dien **Arantxari** eta **Martin!** Urte askotarako!



Martxoaren 16an **Uzuri Cebrianek** urteak egin zituen. Zorionak, laztana!



Zorionak, **Haizea!** Nola pasatzen den denbora... Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez. Disfrutatu zure eguna!

Eguraldia

ZAPATUA 8° / 16° ☁

ASTELEHENA 6° / 21° ☁

EGUAZTENA 9° / 21° ☁

DOMEKA 7° / 12° ☁

MARTITZENA 7° / 19° ☁

EGUENA 11° / 19° ☁



Martxoaren 27tik
aprilaren 21era arte

Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D ereduan

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Familia, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.



KALITATEA
HEZKUNTZAN

Eskola
Jasangarria
Ziurtagiria

"Jokoak gertaera historikoak ezagutzeko modu ludikoa dira"

Pedro Iñaki Martinezek beti izan du joko historikoekiko grina. 2021ean 'La Guerra de la Triple Alianza' merkaturatu zuen, eta orain 'Asturias 1936-1937' noiz kaleratuko zain dago



Pedro Iñaki Martinez
Joko historikoak egiten ditu
DURANGO | 1969

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Pedro Iñaki Martinezek urteetako arantza kendu zuen 'La Guerra de la Triple Alianza' joko merkaturatu zuenean, NAC-Wargames-MasQueOca enpresagaz. Gaztelaniaz eta ingelesez jokatu daiteke —italierara itzultzen dabilta— eta oso harrera ona izan du. Juegos Anboto plataforma digitalean, berak sorturiko jokoak doan jaisteko aukera ematen du.

Badira urte batzuk 'La Guerra de la Triple Alianza' jokoak sortu zenuela. Orain lau urte sortu nuen. Eta joko merkaturatzeko aukera eskaini zidatenean pozarren onartu nuen. Izan ere, nik neuk merkaturatzea

pentsatuta nuen, baina inbertsio handia eskatzen du. Hego Amerikako gudarik handiena izan zen, baina oso ezezaguna da.

Horregaitik aukeratu zenuen?

Bidegabea iruditzen zitzaidan. Oso gai mingarria da oraindino ere Paraguaian; borrokatu ziren gizonen %95 hil ziren, eta hurrengo andren belaunaldia izan zen, ezinbestean. Argentinan orain hasi dira han gertatu zenaz kontzientzia apur bat hartzen; eta Brasilen azalitik ikasten dute. Jokoak errespetu handiz eginda dago, eta inoren alde egin barik.

Oso harrera ona izan du, AEBetan eta Japonian ere bai. Harritu egin zaitu?

Betidanik erakarri naute mapek, eta gertaera historikoak mapetan islatzea plazera izan da niretzat

Asko! Mundura zabalduko joko baten 1.000 ale saltzea nahiko erraza da. Baina Euskal Herrian sortua denean ikaragarria da, zoramena. Japonian agortu egin da, eta AEBak joko historikoaren sorleku direla jakinda nire jokoak saltzea ederra da.

Estrategia joko bat da. Nola jokatzeko da?

Aliatuen alderdiak erasora joko du etengabe, eta Paraguaik behin eta berriro begiratu edo aztertu beharko du zelan eutsi. Izan ere, joko historikoak joko desorekatuak dira. Gerraren hasieran jarriko dira jokalaria, bakoitzak rol bat hartuta. Egoera horretan bakoitzak zelan jokatu lukeen aztertu behar du, eta irtenbiderik onena topatu. Historian gertatu zena hobetzeko gai garen ala ez ikusiko dugu. Joko hauek oso baliabide ona dira historia transmititzeko; gertaera histo-

“AEBak joko historikoen sorleku direla jakinda, nire jokoak saltzea ederra da”

rikoak ezagutzeko modu ludikoa dira. Alde bietan jokatu, gerra zelan garatu zen ikusi daiteke.

Noiztik duzu joko hauekiko grina?

Betidanik. Gainera, joko hauekiko lilurak historiagazko interesa piztu zidan. Betidanik erakarri naute mapek, eta gertaera historikoak mapetan islatzea plazera izan da niretzat. Gerora, Interneten murgildu eta zaletasun berdina zuen beste hainbategaz harremantzen hasi nintzen. Hor nabil murgilduta.

Zenbat debora behar duzu joko bat sortzeko?

Urte bi bai, gutxienez. Asko irakurri behar da, eta informazio guztia batu ondoren hautaketa bat egin eta dena ordenatu. Gero, mapa prestatzen dut, ordenagailuan; laukiak, fitxak, kartak... ere bai. Azkenik, behin arauak erabakita, probatu egiten dut.

Zein duzu etorkizuneko erronka?

Ate berri hau zabaldua, honek guzti honek halako garrantzia hartu du. Itzela da zelan joan den dena. Jokoaren aldaerak ere sortu dituzte, jokoak berak bakarrik ebolutuatu du, eta oso aberasgarria da. Baina ez naiz honetaz bizi. Ez dut uste bizi daitekeenik. Lan luzea eta neketsua da joko historiko bat sortzea, beti ase bako sentsazioagaz. Eta jokatzeko gustatzen zait eta denbora batean horixe egingo dut.

Lauhortza

Karolina Suarez
Borges
Kazetaria



Inposaketari gailendu zitzaion herria

Zerbitzu publikoen obren kostua hirigintza-espekulazioarekin lotzea, lurzoru publikoa pribatizatzeko. Premisa hau ezaguna zaizue? Inposatzeko eskubidearen marko zurruna propioki asmatua eta ezarria izan da luzaroan eskualde honetan; Durangon berrogei urtez, kasurako. Ezaguna izango zaizue ere erabakitze eskubidea inposatzekoari gailendu zitzaioneko. Hain justu, eguaztenarekin bi urte bete ditu Durangoko lehen udal kontsultak.

“Durango operazioa” entzuna duzue? 2012an 270 milioi euro baino gehiagoko kostuarekin amaitu ziren trenaren lurperatze obrak. Herriaren bihotzean 18 solairuko 5 dorre eraikitze apustuak agerian uzten zuen beste behin ere zerbitzu publiko baten kostua hirigintza-pilotakada pribatu batekin lotu nahia.

Horren aurrean, nekeza suertatu zitzaion Erabaki herriar plataformari entzuna izatea durangarren nahia nahikoa iruditzen ez zitzaion boterearekin talkan. Traben gaineratik baina, herriarren ahotsa altxatu zen eta danbada horri gogor helduta iritsi zen gobernu aldaketa. Egitako moduetan aldaketa.

Bere horretan edozein parte hartze prozesu ez litzateke ezohikoa izan beharko; halere, lehen aldian zen erabakitze eskubidea aitortzen zitzaigula. Hauteskunde aldien artean ikusle izatera ohitu gaituzte; marko horretatik kanpo asaldatzen gara. Trenaren bidea izan zenaren zauriak ixten doaz orain eta utziko duen orbaina harro erakusteko izango da. Inposizio-politiken masterra aspaldi gainditu genuen, praktika egokiena falta zaigu orain. Horretarako, denbora behar da.

SAN
ROKE
BARRIA

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon,
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41
www.sukia.com